




OINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresak, kafetegia aurrera eraman ahal izateko, hainbat zerbitzu eman beharko ditu. Horien bitartez, bezeroak gure produktuez gozatu ahal izango dute, nahi duten momentuan eta tokian. Horretarako, bezeroen behar guztiak asetzeko produktuak prest eduki beharko ditugu, edozein pertsona etortzeko, hau da, elikdura ohiturak aldatu dituztenak, alergiaren bat dutenak.

SIAMBAT S.Coop, pertsona guztientzako egokitua dagoen enpresa bat da, zerbait hartzeaz gain, lana egin ahal izateko tokia ere izango baita. Pertsonen gain, animaliak ere ongi etorriak izango dira, hau da, bezeroak beraien animaliak ekarri ahal izango dituzte eta ura edan dezaten edaritegiak izango dituzte.

Hauek dira SIAMBAT S.Koop enpresak ematen dituen zerbitzuak:



Asteartetik igandera egongo da irekita, 7:00etatik 20:00etara.



Gure kafea, Illy enpresari erosten diogu, kalitatea eta prezioarengatik hoberena ateratzen zaigulako. Kafea kontu handiz eta fintasunez egingo dugu, zaporea gal ez dezan.



Gure opilak egiteko, Gureak enpresa azpikontratatu dugu. Horrela, Gureak enpresari, ohiko lanbide batera gerturaten diegu. Produktu ekologikoak erosiko ditugu eta gure langileak gure opilak egingo dituzte.